

2018

Aurrera Begira

Gazteen aurreikuspenei
buruzko adierazleak

Euskadi, auzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAIA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Argitaraldia:

Bilbo, 2019ko otsaila

Argitaratzailea:

Gazteen Euskal Behatokia

Ikerlariak:

Nieves Corcuera Bilbao, Oskar Longo Imatz eta
Miren Bilbao Gaztañaga

Diseinua:

Bell

Maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza.
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:
Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported
(<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Zer da aurrera begira?

Aurrera Begira Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da, honako helburu hau izanik: Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina eta, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak jakitea.

Ikerketa Euskadiko gazteriaren lagin adierazgarri bati telefonoz egindako inkesta batean oinarritzen da. Lagina Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko 1512 gaztek osatzen dute. Inkestak 2018ko urriaren 22tik azaroaren 15era burutu zen.

Azterlan hau egiten den ondoz ondoko seigarren urtea da, eta helburua da herritarrei eta esparru horretan erantzukizun politikoak eta teknikoak dituztenei tresna erraz eta sintetiko bat ematea, gazteen egoeraren ebaluazioa eta jarraipena egiteko. Horretarako, enpleguaren eta emantzipazioaren egoeran eragin berezia duten 10 adierazleren bilakaera aurkezten da.

1. Egungo egoeraren balorazio indizea
2. Norberaren poztasun indizea
3. Bizitzaren alderdien balantzea
4. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua
5. Lana aurkitzea aurreikustea
6. Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea
7. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea
8. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea
9. Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea
10. Etorkizunarekiko konfiantza indizea

Emitza orokorrak, adierazleen bilakaera eta ondorioak azaldu ondoren, informazio osagarria ematen da hiru eranskinetan:

- **I. Eranskina:** Nola eraikitzen diren adierazleak.
- **II. Eranskina:** Adierazleen bilakaera sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka. 2013-2018.
- **III. Eranskina:** Adierazleak eraikitzeko erabilitako oinarritzko datuak.

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

METODOLOGIA

Kuantitatiboa, galdera-sorta egituratu eta itxiko inkesta telefonikoen bidezkoa.

INKESTATURIKO UNIBERTSOA

15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteak.

INKESTA KOPURUA

1512 (408 Araban, 600 Bizkaian eta 504 Gipuzkoan).

LAGIN AKATSA

\pm % 2,5 (% 95,5eko konfiantza-maila eta $p=q=0,5$).

INKESTAK EGITEKO EPEA

2018ko urriaren 22tik azaroaren 15era

IKERKETAREN DISEINUA ETA EMAITZEN ANALISIA

Gazteen Euskal Behatokia.


LANDA LANA

Ikertalde Grupo Consultor.

1. Egungo egoeraren balorazio indizea

DEFINIZIOA:

Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa. 0tik 100era doan eskalan.



Egungo egoeraren balorazio indizea 2018an								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
69	69	70	73	69	66	69	69	70




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

2. Norberaren poztasun indizea

DEFINIZIOA:

Norberaren egoerari buruzko hainbat arlo aintzat hartuta (lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia edo denbora librea, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasuna, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasua kontuan izanda), bakoitzarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Norberaren poztasun indizea 2018an								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
78	79	78	80	78	76	78	78	79




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

3. Bizitzaren alderdien balantzea

DEFINIZIOA:

Bizi-alderdien balantzeak erlazioan jartzen ditu, alde batetik, gazteek beren bizitzako hamar alderdiri ematen dieten garrantzia eta, bestetik, haiekin lortzen duten gogobetetasuna, eta bi kasuetan 0-100 eskala erabiltzen da. Kontuan hartutako hamar alderdiak hauek dira: lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia edo denbora libre, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasuna, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasua kontuan izanda.

Erlazioa bi ardatzetako grafiko batean adierazten da. Grafiko horretan X ardatza gogobetetasunari dagokio eta Y ardatza garrantziari. Grafikoaren irakurketa erraztearren, bi ardatzak 50ean hasten dira, ez baitago baliorik puntu horren azpitik.



Bizitzaren alderdien garrantzia 2018an

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Osasuna	95	96	94	95	95	96	95	95	95
Familia	94	95	94	95	93	94	94	94	94
Lagunak	89	89	88	90	89	88	89	89	89
Lana	86	87	84	81	87	89	82	87	86
Ikasketak, prestakuntza	86	88	83	87	86	84	85	86	85
Astialdia	83	83	82	83	82	83	75	83	83
Harreman sentimentalak edota sexualak	79	79	79	75	81	81	76	78	80
Dirua	79	80	78	77	79	80	66	80	78
Emantzipazioa, norberaren kontura bizi izatea	78	81	75	70	78	84	75	78	78
Itxura fisikoa	66	66	65	66	65	66	66	66	66

Bizitzaren alderdiekiko gogobetetasuna 2018an

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Osasuna	87	88	87	89	87	85	86	87	88
Familia	91	92	91	93	90	90	91	91	91
Lagunak	86	86	86	89	86	84	86	87	85
Lana	68	68	68	70	68	66	67	67	70
Ikasketak, prestakuntza	77	80	77	77	77	76	76	77	78
Astialdia	75	75	75	76	74	75	73	75	76
Harreman sentimentalak edota sexualak	76	78	76	72	78	78	76	75	78
Dirua	66	66	66	72	65	62	68	65	68
Emantzipazioa, norberaren kontura bizi izatea	79	79	79	87	79	73	80	79	80
Itxura fisikoa	77	77	77	79	77	75	78	77	78




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea



4. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua

DEFINIZIOA:

Urtebetean enplegua galtzea edo beren lan-egoera okertzea oso edo aski litekeena delako ustea duten langile gazteen ehunekoa.



Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua 2018an									
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte*	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lana galtzeko arriskua	23	30	17	-	25	22	25	20	25
Lan baldintzak okertzeko arriskua	7	8	6	-	7	7	5	9	5
ARRISKU OSOA	30	38	23	-	32	29	30	30	30

*15 eta 19 urte bitarteko adin-taldean ezin da daturik eskaini, estatistika aldetik ez dagoelako gazte langileen kopuru nahikorik.




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

5. Lana aurkitzea aurreikustea

DEFINIZIOA:

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabe gazteen ehunekoa.



Lana aurkitzea aurreikustea 2018an								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte*	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
82	77	86	-	83	81	78	77	93

*15 eta 19 urte bitarteko adin-taldean ezin da daturik eskaini, estatistika aldetik ez dagoelako gazte langileen kopuru nahikorik.




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

6. Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea

DEFINIZIOA:

Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.



Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea 2018an								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
76	70	82	78	75	67	71	72	83




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

7. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea

DEFINIZIOA:

Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea 2018an								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
8	9	8	9	10	6	7	8	9




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

8. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea

DEFINIZIOA:

Emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean gauzaterik izango ez dutela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik atera nahi izan arren horretarako aukerarik ikusten ez dutelako, edo, bestela, emantzipatuta egon arren gogoz kontra gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dutelako.



Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea 2018an								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
49	49	49	49	58	41	44	54	44




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

9. Gazteen gaitasuneko konfiantza indizea

DEFINIZIOA:

Zailtasunei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren gaitasun batzuk aintzat hartuta (langilea, arduratsua, kualifikatua, parte-hartzailea, ekintzailea, idealista eta autonomoa izatea), Euskadiko gazteek gaitasunok zein mailatan dituzten iritziaren batez besteko puntuazioa 0tik 100era doan eskalan.



Gazteen gaitasuneko konfiantza indizea 2018an

Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
70	71	69	71	69	71	71	67	74




I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

10. Etorkizunarekiko konfiantza indizea

DEFINIZIOA:

Norberaren egoerak, gazteenak eta Euskadirenak hurrengo 5 urteetan izango duten bilakaerari buruzko usteen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Etorkizunarekiko konfiantza indizea 2018an								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
74	73	74	72	75	75	73	74	73





I. eranskina. Nola eraikitzen den adierazlea

ONDORIOAK


EGUNGO EGOERAREN BALORAZIOAK HOBERA EGITEN JARRAITZEN DU APURKA-APURKA. GAZTEAK POZAGO DAUDE BEREN EGOERA PERTSONALAREKIN, EUSKADIKO GAZTERIA OSOARENAREKIN BAINO

-  100 puntutik 69 ematen dizkiote gazteek egungo egoerari. Balio horrek 2017an lortutakoa bezalako da baina baloreak bederatzi puntutako igoera izan du Aurrera Begira izeneko ikerketa-seriea hasi zenetik hona; orduan, 2013an, 60 puntu jaso baitzituen une horretako egoerak.




Adierazlea osatzen duten hiru alderdietatik egoera pertsonala da baloraziorik onena lortzen duena (77 puntu), ondoren Euskadiren egoeraren balorazioa dator (69 puntu), eta gazteria osoaren egoerak jaso du puntuaziorik baxuena (100 puntutik 62).

-  Hamar bizi-alderdiri buruzko gogobetetasuna kontuan izanik norberaren poztasun indizea osatzen da. Indize hori altua da: 100 puntutik 78 baititu. Eta balio hori oso iraunkor mantentzen da urteetan zehar.
-  Euskadiko gazteak gehien gogobetetzen dituzten bizi-alderdiak hauexek dira, ordena honetan: familia (100etik 91 puntu), osasuna (87 puntu) eta lagunak (86 puntu).

LANA ETA DIRUA DIRA ARRETA HANDIEN BEHAR DUTEN ALDERDIAK



-  Neurtutako hamar bizi-alderdi horiei gazteek emandako garrantzia eta gogobetetasuna erlazioan jarritz gero, ikus dezakegu lana edota lanarekiko aurreikuspenak eta dirua direla garrantziaren eta gogobetetasunaren arteko alderik handiena dutenak. Zalantzarik gabe, lana agertzen da gazteriaoko politika publikoetatik lehentasunez ekin beharreko arloa.

LANAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEK NABARMEN EGIN DUTE HOBERA: LANA GALTZEKO ARRISKUAK BEHERA EGIN DU LANEAN DABILTZAN GAZTEEN ARTEAN, LANA AURKITZEKO AURREIKUSPENAK IGO EGIN DIRA LANGABEZIAN DAUDENEN ARTEAN, BAITA PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEKO AURREIKUSPENAK ORAINDIK IKASTEN ARI DIRENEN ARTEAN ERE


-  Lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuak bi puntutako jaitsiera izan du iaiztik hona. 2013tik (lehenengo neurketa egin zenean) 2018ra adierazle honek 27 puntutako jaitsiera izan du. 2018an lanean dabiltzan gazteen % 23k uste dute litekeena dela lana galtzea urtebeteko epean eta beste % 7k uste dute litekeena dela lan-baldintzek okerrera egitea, nahiz eta lana ez galdu.
-  Langabezian daudenen artean lana aurkitzeko itxaropena lau puntutan hazi da azken urtean eta 2013an hasitako seriearen altuena da oraingoa; gazte langabeen % 82k uste baitute lana aurkituko dutela urtebeteko epean.
-  Ikasleen artean gora egin du beren prestakuntzari lotutako lana izatearen itxaropenak. Igoera hori etengabea izan da 2013tik hona eta 2018an ikasleen % 76k uste dute litekeena dela ikasketak amaitutakoan ikasiarekin lotutako lana aurkitzea (2013an % 46koa zen portzentaje hau).

ONDORIOAK



JAISTEN JARRAITZEN DU DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEAK. HAMAR GAZTETIK BATEK BAINO GUTXIAGOK USTE DU DERRIGORREZ ATZERRIRA JOAN BEHARKO DUELA

-  2018an Euskadiko gazteen % 8k uste dute atzerrira lan egitera joan beharko dutela nahiz eta ideia hori gustukoa ez izan. Derrigorrez emigratu beharra aurreikusten dutenak puntu bat gutxitu dira azken urtean eta 2013tik hona zortzi puntutako jaitsiera izan du adierazleak (2013an % 16k uste zuten derrigorrez emigratu beharko zutela).
-  Gazteriaren erdiari gustatuko litzaioke atzerrira lan egitera joatea, etorkizunean emigratzea litekeena dela uste dutenena baino portzentaje handixeagoa.


EMANTZIPAZIO ZAPUZTUAREN AURREIKUSPENA HAZI DA AURREKO URTEAREKIN KONPARATUZ ETA IA EUSKADIKO GAZTERIAREN ERDIAREN GAINEAN DU ERAGINA

-  Emantzipatzeko proiektua urtebeteko epean gauzatzeko ezintasuna, zeina ikerketa honetan emantzipazio zapuztuaren aurreikuspena deritzon adierazlearen bidez laburtu baita, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 49ra iristen da, 2017an jasotako zifra baino hiru puntu altuagoa.
25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean ere, hamarretik lauk urtebeteko epean ezin izango direla emantzipatu uste dute.


GAZTEEK KONFIANTZA DUTE BEREN GAITASUNETAN ETA, GAITASUN HORIEN ARTEAN, NABARMENTZEN DUTE FORMAZIO ONA DUTELA

-  Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizeak neurtzen du gazteek Euskadiko gazteria osoaren inguruan duten iritzia. Horretarako galdetzen zaie, beren ustez, euskal gazteriak zenbateraino betetzen dituen honako ezaugarri hauek: langile, arduratsua, ondo prestatua, parte hartzailea, ekintzailea, idealista eta autonomia izatea. 0tik 100erako eskalan Euskadiko gazteriak 70 puntu jaso ditu 2018an, aurreko urtean bezala eta 2013an baino lau puntu gehiago (2013an 66 puntu jaso baitzituen).
-  Gazteria, talde orokorra bezala, baloratzen dutenean, gazteek beraiek nabarmentzen duten ezaugarria beren formazioa eta kualifikazioa da (88 puntu). Aitzitik, beren ustetan, gazteriak gutxien betetzen duen ezaugarria ekintzailea izatea da (57 puntu).

ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA HANDITU DA

-  Euskadiko gazteak baikorrak dira etorkizunari begira. Beren egoera pertsonalak, gazteria osoaren egoerak eta Euskadiko egoerak izango duten bilakaera neurtzen duen adierazleak 74 puntu lortu ditu 0tik 100erako eskalan. Adierazlea puntu bat jaitsi da iaz jasotako puntuazioarekin konparatuta, baina hamar puntutako igoera izan du 2013an, seriea hasi zenean, jasotakoarekin konparatuz gero.

Aurrera Begira 6 urte



Gazteek nola antzematen duten oraina eta etorkizunarekiko dituzten aurreikuspenak laburbiltzen dituzten adierazleak hobera egin zuten iaz eta 2018an hobekuntza hori sendotu da. **Egungo egoeraren balorazio indizeak** 100 puntutik 69 lortu ditu eta etorkizunarekiko konfiantza indizea 74 puntutara iritsi da. 2013an, Gazteen Euskal Behatokiak "Aurrera Begira" izeneko seriea hasi zuenean, jasotako emaitzekin konparatuta, bederatzi eta hamar puntu gehiago, hurrenez hurren, lortu dituzte orain adierazle horiek.

2018an **lana** da, berriro ere, gazteriari bideratutako politika publikoen artean lehentasunez ekin beharreko xedea. Gazteek hamar bizi-alderdiei emandako garrantzia eta bizi-alderdi horiekiko sentitutako gogobetetasunaren arteko alderik handiena duen arloa baita lana edota lan-aurreikuspenak, orain lanean ez dabiltzan artean.

Hala ere, ikerketak egiaztatzen du lanari lotutako adierazle guztien hobekuntza: lanean dabiltzan gazteen artean jaitsi da **lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskua**, langabeen artean **lana aurkitzeko aurreikuspena** handitu da eta igoera izan du ere ikasleen artean beren **formazioari lotutako lana aurkitzeko aurreikuspenak**. Bestalde **derrigorrez emigratu beharra aurreikusteari** buruzko indizeak bilakaera positiboa izan du eta 2018an % 10ek baino gutxiagok uste dute emigratu beharko dutela, nahi ez badute ere.

Epe laburreko **emantzipazioaren aurreikuspena** ez da hobetu: ia gazteriaren erdiak uste du datorren urtean ezin izango dela bere kontura bizi, nahi izan arren.



I. ERANSKINA

Nola eraikitzen diren adierazleak

1. Egungo egoeraren balorazio indizea (EEBI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Norberaren egoera pertsonalari (A), Euskadiko gazteen egungo egoerari (B) eta Euskadiren egungo egoerari (C) 0tik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei.

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, 0tik 100era doan eskalara egokitzeko.

$$EEBI = [(A+B+C) / 3] \times 10$$

2. Norberaren poztasun indizea (NPI)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da. Galdera horretan euren bizitzaren hamar alderdietan duten poztasun-mailari 0tik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei. Hauexek dira hamar alderdi horiek: beren lan-egoera edo lan-aurreikuspenak (A), beren ikasketak edo prestakuntza maila (B), beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera (C), beren familia (D), beren astialdia edo denbora libre (E), beren lagunak (F), beren harreman sentimental edota sexualak (G), beren osasuna (H), hilean duten dirua (I) eta beren itxura fisikoa (J).

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, 0tik 100era doan eskalara egokitzeko.

$$NPI = [(A + B + C + D + E + F + G + H + I + J) / 10] \times 10$$

3. Bizi-alderdien balantzea (BAB)

Balantzea bi galdera oinarri hartuta egiten da. Lehenengo galderan inkestatutako pertsonen eskatzen zaie adierazteko 0 eta 10 arteko eskala batean zenbat punturekin neurtzen duten beren bizitzako zenbait alderdiri emandako garrantzia (lanari, ikasketa edo formazioari, familiari, osasunari, itxura fisikoari, harreman sentimental edota sexualei, astialdiari, lagunei, diruari eta emazte/parezeari, hau da, beren kontura bizitzeari). Bigarren galderan eskatzen zaie adierazteko alderdi horiekiko (beren lan-egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, beren ikasketak edo formazio maila, beren familia, beren osasuna, beren itxura fisikoa, beren harreman sentimental edota sexualak, beren astialdia, beren lagunak, hilean duten dirua eta beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera) duten gogobetetasun pertsonala edo poztasun maila, 0-10 eskala berean neurtuta.

Ondoren balio guztiak 10ez biderkatzen dira, 0-100 eskalara egokitzeko, eta ondoren bi ardatzeko grafikoan kokatzen dira. Grafiko horretan ardatz horizontalak alderdi horiekiko gogobetetasuna adierazten du eta ardatz bertikalak alderdi horiei emandako garrantzia.

Grafikoaren irakurketa erraztearren, bi ardatz 50ean hasten dira, ez baitago baliorik puntu herren azpitik.

4. Lana galtzeko edo okertzeko arriskua (LGOA)

Gazte landunei egindako bi galderatan oinarrituta egiten da adierazlea. Lehenengoan (A), inkestatutako pertsoneri eskatzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela (oso, aski, ez oso, batere ez) urtebeteko epean galtzea daukaten enplegua. Bigarrenengoan (B), daukaten enplegua galtzea oso litekeena ez dela uste dutenei galdetzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela (oso, aski, ez oso, batere ez) urtebeteko epean beren lan-egoera okertzea.

Adierazlea kalkulatzeko, batera kontuan hartzen dira, alde batetik, gazte landunen ehuneko zenbatek uste duten oso edo aski litekeena dela beren enplegua galtzea urtebeteko epean eta, bestetik, lana galtzea oso edo batere litekeena ez dela uste arren zenbatek uste duten oso edo aski litekeena dela daukaten lan egoera okertzea.

LGOA = (A= Oso edo Aski litekeena izan) + (A= Ez izan Oso edo Batere litekeena & B= Oso edo Aski litekeena izan)

Ehunekoak 100era doitzen dira erantzunik ezaren eragina ekiditeko.

5. Lana aurkitzea aurreikustea (LAA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan langabeei ondokoa eskatu zaie: adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebeteko epean enplegua aurkitzea.

Adierazlea kalkulatzeko, urtebeteko epean seguru aski edo agian enplegua aurkituko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

LAA = (A= Seguru aski bai edo Agian bai)

6. Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (PLLIA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan ikasleei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) euren prestakuntzarekin lotutako enplegua aurkitzea, ikasketak amaitutakoan.

Adierazlea kalkulatzeko, prestakuntzari lotutako enplegua seguru aski edo agian lortuko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

PLLIA = (A = Seguru aski bai edo Agian bai)

7. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (DEBA)

Gazte guztiei eginiko bi galderatan oinarrituta dago. Lehen galderan (A) inkestatuei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) etorkizunean atzerrira lan egitera joan behar izatea. Bigarrenengoan (B) persona bereberei galdetu zaie zein neurritan joan nahi izango luketen atzerrira lanera (asko, nahikoa, gutxi, batere ez).

Adierazlea kalkulatzeko, seguru aski edo agian atzerrira joan beharko dutela baina joateko gogo gutxi edo batere ez dutela dioten lagunak bakarrik hartu dira kontuan.

DEBA = (A = Seguru aski bai edo Agian bai & B= Gogo gutxi edo Batere ez)

8. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (EZA)

Adierazlea lau galderatan oinarritzen da. Lehen bi galderak gazte ez emantzipatuei egin zaizkie; hirugarrena eta laugarrena, aldiz, gazte emantzipatuei.

Lehen galderan (A) gazte ez emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean emantzipatzea, eta bigarrenean (B), zein neurritan nahi duten emantzipatu (asko, nahikoa, gutxi, batere ez). Hirugarren galderan (C), gazte emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean gurasoekin bizitzera itzuli behar izatea, eta laugarrenean (D) zein neurritan (asko, nahikoa, gutxi, batere ez) nahi duten gurasoekin bizitzera bueltatu.

Adierazlea kalkulatzeko, kontuan hartu da, emantzipatu gabeko gazteen artean, urtebeteko epean euren kabuz bizitzea ez dela probablea uste dutenen ehunekoa, nahiz eta emantzipatzeko gogoak izan. Era berean, kontuan hartu da, emantzipatutako gazteen artean, urtebeteko epean seguru aski edo agian gurasoen etxera bueltatu behar izango dutenen ehunekoa, horretarako gogo gutxi edo batere ez izan arren.

EZA = (A = Ez duzu uste edo Seguruenik ez & B = Asko edo Nahikoa) +

(C = Seguru aski bai edo Agian bai & D = Gutxi edo Batere ez)

9. Gazteen gaitasuneko konfiantza indizea (GGKI)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da. Bertan inkestatuei galdetu zaie, euren ustez, zein neurritan (oso, nahikoa, ez oso edo batere ez) egungo Euskadiko gazteak diren langileak, arduratsuak, kualifikatuak, parte-hartzaileak eta gai publikoek kezkatuak, ekintzaileak, idealistak, autonomoak eta bere kabuz moldatzeko gai.

Adierazlea kalkulatzeko, adierazitako ezaugarrietako bakoitzean kenketa egin da gazteek ezaugarri horiek neurri handian edo nahikoan dituztela uste dutenen eta gutxi edo batere ez dituztela uste dutenen ehunekoen artean. Erantzunik eman ez dutenen ehunekoak ez dira aintzat hartu.

LANGILEA (L) = [(% Oso + Nahikoa) – (% Ez oso + Batere ez)]

ARDURATSUA (AR) = [(% Oso + Nahikoa) – (% Ez oso + Batere ez)]

KUALIFIKATUA (K) = [(% Oso + Nahikoa) – (% Ez oso + Batere ez)]

PARTE-HARTZAILEA (P) = [(% Oso + Nahikoa) – (% Ez oso + Batere ez)]

EKINTZAILEA (E) = [(% Oso + Nahikoa) – (% Ez oso + Batere ez)]

IDEALISTA (I) = [(% Oso + Nahikoa) – (% Ez oso + Batere ez)]

AUTONOMOA (AU) = [(% Oso + Nahikoa) – (% Ez oso + Batere ez)]

Ondoren, kendura bakoitzari 100 gehitu zaio, zenbaki negatiboak ekiditeko, hau da, L+100; AR+100; K+100; P+100; E+100; I+100; AU+100.

Adierazle partzial horien balioa 0 eta 200 artekoa da. 100etik beherako balioek adierazten dute ez dela uste Euskadiko gazteek ezaugarri hori dutenik; 100etik gorakoak izanez gero, ordea, gure gazteen ezaugarri orokorrak direla uste izango da.

Azkenik, aurreko adierazle partzialen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da. Eraitza zati bi egin da, 0-100 eskalara egokitze aldera.

GGKI = ([(L+100) + (AR+100) + (K+ 100) + (P+100) + (E+100) + (I+100) + (AU+100)] / 7) / 2

10. Etorkizunarekiko konfiantza indizea (EKI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Lehen galderan (A), bost urteko epean egoera pertsonala hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie inkestatuei. Bigarrenean (B), Euskadiko gazteen egoera orokorki hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie. Eta hirugarrenean (C) Euskadiko egoera orokorra hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie.

Adierazlea kalkulatzeko, galdera bakoitzean, kenketa egin da egoera hobetuko dela uste dutenen eta okertuko dela uste dutenen ehunekoan artean. Ez dira kontuan hartu egoerak berdin jarraituko duela diotenen ehunekoak, ezta erantzunik eman ez dutenenak ere.

NORBERAREN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (NEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) A galderan

GAZTEEN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (GEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) B galderan

EUSKADIREN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (EEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) C galderan

Ondoren, kendura bakoitzari 100 gehitu zaio, zenbaki negatiboak ekiditeko, hau da, NEA+100, GEA+100 eta EEA+100.

Adierazle partzial hauen balioa 0 eta 200 artekoa da. 100etik beherako balioek aurreikuspen ezkorrak adierazten dituzte; 100etik gorakoek, aurreikuspen baikorrak.

Azkenik, aurreko hiru adierazle partzialen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da. Emaitza zati bi egin da, 0-100 eskalara egokitze aldera.

$$EKI = ([(NEA+100) + (GEA +100) + (EEA + 100)] / 3) / 2$$



II. ERANSKINA

Adierazleen bilakaera sexuka, adin taldeka eta lurralde historikoka. 2013-2018

Sexua

	Neurria	Gizonak						Emakumeak					
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Egungo egoeraren balorazio indizea	(0-100)	60	62	66	67	68	70	61	62	67	66	69	69
Norberaren poztasun indizea	(0-100)	79	77	80	80	79	78	80	80	82	81	79	79
Bizitzaren alderdien balantzea													
Osasunari emandako garrantzia	(0-100)	96	95	94	95	92	94	96	96	96	96	95	96
Familiari emandako garrantzia	(0-100)	93	93	93	93	92	94	95	96	95	95	94	95
Lagunei emandako garrantzia	(0-100)	88	86	88	88	88	88	89	89	91	90	89	89
Lanari emandako garrantzia	(0-100)	88	87	86	87	85	84	90	91	88	89	88	87
Ikasketei, prestakuntzari emandako garrantzia	(0-100)	84	84	85	85	82	83	89	88	88	89	87	88
Astaldiari emandako garrantzia	(0-100)	83	81	84	85	82	82	85	84	87	86	84	83
Harreman sentimentalei edota sexualei emandako garrantzia	(0-100)	85	83	83	83	81	79	85	83	84	82	81	79
Diruari emandako garrantzia	(0-100)	78	76	75	77	77	78	80	80	78	78	81	80
Emantzipatzeari, beren kontura bizitzeari emandako garrantzia	(0-100)					79	75					82	81
Itxura fisikoari emandako garrantzia	(0-100)					67	65					69	66
Osasunarekiko poztasuna	(0-100)	88	87	88	88	87	87	88	88	88	88	88	88
Familiarekiko poztasuna	(0-100)	89	89	89	89	90	90	90	90	91	91	91	92
Lagunekiko poztasuna	(0-100)	85	84	85	87	85	86	86	86	88	86	86	86
Lan egoerarekiko edo aurreikuspenekiko poztasuna	(0-100)	76	72	75	76	68	69	72	75	77	76	69	68
Ikasketekiko, prestakuntzarekiko poztasuna	(0-100)	74	73	77	76	77	74	77	77	81	79	80	80
Astaldiarekiko poztasuna	(0-100)	76	74	76	77	76	75	75	74	75	74	74	75
Harreman sentimental edota sexuarekiko poztasuna	(0-100)	79	77	78	77	77	74	82	81	80	79	79	78
Hilean duten diruarekiko poztasuna	(0-100)	65	62	68	66	66	67	64	64	67	67	67	66
Familiarekin edo beren kontura (kasuaren arabera) bizi izatearekiko poztasuna	(0-100)					79	79					80	79
Itxura fisikoarekiko poztasuna	(0-100)					80	77					78	77
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua	(%)	54	46	49	38	28	23	58	49	55	45	36	38
Lana galtzeko arriskua	(%)	33	36	41	31	19	17	43	36	48	35	29	30
Baldintzak okertzeko arriskua	(%)	21	10	8	7	9	6	15	13	7	10	7	8
Lana aurkitzea aurreikustea	(%)	51	60	72	64	82	86	57	60	70	74	74	77
Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea	(%)	51	59	66	69	78	82	41	53	63	67	71	70
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea	(%)	17	14	16	13	13	8	15	14	12	12	9	9
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea	(%)	45	49	49	50	46	49	45	47	49	42	46	49
Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea	(0-100)	63	68	74	71	70	69	68	70	77	75	72	71
Etorkizunarekiko konfiantza indizea	(0-100)	63	74	74	70	73	74	65	75	74	73	76	73

Hutsik dauden laukietan ez dago daturik aurreko urteetan ez zelako horri buruz galdetu.

Adin taldeak

	Neurria	15-19 urte						20-24 urte						25-29 urte					
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Egungo egoeraren balorazio indizea	(0-100)	69	69	71	66	71	73	60	62	66	67	69	69	55	57	63	67	66	66
Norberaren poztasun indizea	(0-100)	81	79	83	82	81	80	78	79	81	80	78	78	78	77	80	79	78	76
Bizitzaren alderdien balantzea																			
Osasunari emandako garrantzia	(0-100)	96	95	95	95	93	95	96	96	95	96	93	95	96	96	95	96	94	96
Familiari emandako garrantzia	(0-100)	95	95	94	95	93	95	94	94	94	93	93	93	94	94	93	94	93	94
Lagunei emandako garrantzia	(0-100)	90	88	89	89	89	90	89	88	90	90	88	89	87	86	89	89	88	88
Lanari emandako garrantzia	(0-100)	88	88	85	86	84	81	89	88	88	88	86	87	90	90	88	89	88	89
Ikasketei, prestakuntzari emandako garrantzia	(0-100)	88	87	87	87	86	87	87	85	88	88	86	86	84	85	84	85	83	84
Astaldiari emandako garrantzia	(0-100)	83	82	84	85	83	83	83	82	85	86	82	82	84	83	85	85	84	83
Harreman sentimentalei edota sexualei emandako garrantzia	(0-100)	84	81	81	80	77	75	85	83	85	84	80	81	86	84	84	84	84	81
Diruari emandako garrantzia	(0-100)	78	77	76	77	79	77	79	79	78	77	78	79	80	78	76	88	79	80
Emantzipatzeari, beren kontura bizitzeari emandako garrantzia	(0-100)					75	70					80	78					84	84
Itxura fisikoari emandako garrantzia	(0-100)					68	66					67	65					68	66
Osasunarekiko poztasuna	(0-100)	91	89	88	90	89	89	89	88	88	88	87	87	86	87	87	87	86	85
Familiarekiko poztasuna	(0-100)	91	89	90	91	92	93	89	89	90	89	91	90	89	90	90	90	90	90
Lagunekiko poztasuna	(0-100)	90	87	87	88	87	89	85	85	87	86	86	86	83	83	85	86	84	84
Lan egoerarekiko edo aurreikuspenekiko poztasuna	(0-100)	-	-	-	-	71	70	71	77	75	76	68	68	74	73	76	75	68	66

...

Adin taldeak

	Neurria	15-19 urte						20-24 urte						25-29 urte					
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Astaldiarekiko poztasuna	(0-100)	80	77	76	75	78	76	74	73	77	75	74	74	75	72	75	76	75	75
Harreman sentimental edota sexuarekiko poztasuna	(0-100)	80	77	76	75	74	72	79	80	81	79	78	78	82	80	80	80	80	78
Hilean duten diruarekiko poztasuna	(0-100)	77	74	75	75	72	72	63	62	66	65	64	65	58	55	63	62	64	62
Familiarekin edo beren kontura (kasuaren arabera) bizi izatearekiko poztasuna	(0-100)					85	87					78	79					76	73
Itxura fisikoarekiko poztasuna	(0-100)					80	79					78	77					78	75
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua	(%)	-	-	-	-	-	-	67	52	53	34	38	32	54	45	51	45	30	29
Lana galtzeko arriskua	(%)	-	-	-	-	-	-	53	46	46	28	25	25	35	32	44	35	24	22
Baldintzak okertzeko arriskua	(%)	-	-	-	-	-	-	14	6	7	6	13	7	19	13	7	10	7	7
Lana aurkitzea aurreikustea	(%)	-	-	-	-	-	-	57	55	74	67	89	83	57	61	69	71	75	81
Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea	(%)	51	58	66	66	75	78	43	51	64	71	73	75	35	62	63	70	79	67
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea	(%)	19	15	16	16	13	9	18	16	12	13	10	10	13	13	14	9	10	6
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea	(%)	46	52	46	46	50	49	61	58	58	52	57	58	32	36	44	42	33	41
Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea	(0-100)	66	70	72	72	70	71	63	69	76	73	70	69	68	68	77	74	72	71
Etorkizunarekiko konfiantza indizea	(0-100)	63	73	68	67	71	72	62	74	75	72	75	75	65	76	77	76	77	75

Hutsik dauden laukietan ez dago daturik aurreko urteetan ez zelako horri buruz galdetu.

Marratxoak dituzten laukietan ez daturik 15 eta 19 urte bitarteko gazte gutxi daudelako lanean edota langabezian.

Lurralde historikoak

	Neurria	Araba						Bizkaia						Gipuzkoa					
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Egungo egoeraren balorazio indizea	(0-100)	62	62	66	67	69	69	59	61	65	66	68	70	61	63	68	67	70	69
Norberaren poztasun indizea	(0-100)	80	78	80	79	78	78	79	78	81	80	79	79	80	79	82	81	80	78
Bizitzaren alderdien balantzea																			
Osasunari emandako garrantzia	(0-100)	95	95	94	95	93	95	96	95	95	96	93	95	96	96	95	96	94	95
Familiari emandako garrantzia	(0-100)	94	93	92	93	93	94	94	94	94	94	94	94	94	94	94	94	93	94
Lagunei emandako garrantzia	(0-100)	88	87	89	89	88	89	89	87	90	89	89	89	88	88	89	90	88	89
Lanari emandako garrantzia	(0-100)	88	88	85	88	86	82	89	89	89	88	87	87	89	88	85	88	86	86
Ikasketei, prestakuntzari emandako garrantzia	(0-100)	86	85	86	87	84	85	86	86	87	87	85	86	86	85	86	86	85	85
Astaldiari emandako garrantzia	(0-100)	84	83	84	85	83	82	84	82	86	86	83	83	83	83	84	85	82	83
Harreman sentimentalei edota sexualei emandako garrantzia	(0-100)	84	83	83	81	82	78	85	83	84	82	81	78	86	84	83	84	81	80
Diruari emandako garrantzia	(0-100)	78	76	75	76	79	76	79	78	77	78	79	80	79	78	76	78	79	78
Emantzipatzeari, beren kontura bizitzeari emandako garrantzia	(0-100)					81	75					80	78					81	78
Itxura fisikoari emandako garrantzia	(0-100)					68	66					68	66					68	66
Osasunarekiko poztasuna	(0-100)	88	87	86	87	87	86	88	88	88	88	87	87	88	88	88	88	88	88
Familiarekiko poztasuna	(0-100)	91	88	89	89	91	91	89	89	90	90	91	91	90	91	90	91	90	91
Lagunekiko poztasuna	(0-100)	85	73	85	86	85	86	86	73	87	86	85	87	85	76	87	87	85	85
Lan egoerarekiko edo aurreikuspenekiko poztasuna	(0-100)	73	84	77	74	68	67	73	85	75	76	68	67	76	85	77	76	71	70
Ikasketekiko, prestakuntzarekiko poztasuna	(0-100)	77	74	76	78	78	76	75	74	65	78	79	77	77	76	79	78	79	78
Astaldiarekiko poztasuna	(0-100)	75	74	75	74	75	73	76	74	75	74	75	75	76	74	77	78	75	76

Lurralde historikoak

	Neurria	Araba						Bizkaia						Gipuzkoa					
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Hilean duten diruarekiko poztasuna	(0-100)	66	63	67	66	66	68	63	61	67	66	66	65	67	67	69	69	67	68
Familiarekin edo beren kontura (kasuaren arabera) bizi izatearekiko poztasuna	(0-100)					78	80					79	79					81	80
Itxura fisikoarekiko poztasuna	(0-100)					78	78					79	77					79	78
Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua	(%)	56	46	47	52	36	30	58	44	52	44	36	29	55	52	52	35	26	30
Lana galtzeko arriskua	(%)	37	32	40	44	29	25	42	35	42	32	26	20	35	39	49	30	20	25
Baldintzak okertzeko arriskua	(%)	19	15	7	8	7	5	16	9	10	12	10	9	20	13	3	5	5	5
Lana aurkitzea aurreikustea	(%)	57	60	65	74	67	78	54	57	68	64	76	77	53	66	80	79	87	93
Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea	(%)	45	60	60	67	73	71	43	53	63	65	71	72	52	60	70	75	80	83
Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea	(%)	13	13	14	11	11	7	17	15	14	14	11	8	16	14	14	11	10	9
Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea	(%)	39	46	43	45	48	44	50	52	54	49	49	54	41	42	44	41	39	44
Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea	(%)	69	70	75	73	69	71	63	66	73	70	67	67	69	73	78	78	76	74
Etorkizunarekiko konfiantza indizea	(0-100)	64	73	74	71	75	73	64	72	74	76	75	74	63	76	73	73	74	73

Hutsik dauden laukietan ez dago daturik aurreko urteetan ez zelako horri buruz galdetu.



III. ERANSKINA

Adierazleak eraikitzeko erabilitako oinarrizko datuak

Egungo egoeraren balorazioa eta etorkizunerako bilakaeraren aurreikuspena

NORBERAREN EGOERA

0 eta 10 arteko eskala erabiliz, zeinetan 0ak oso txarto eta 10ak oso ondo esan nahi duten, nola baloratzen duzu zure egoera pertsonala gaur egun?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batezbestekoa (0-10)	7,7	7,7	7,7	8,0	7,7	7,3	7,6	7,6	7,8

Zure egungo egoera, orain dela bost urtekoarekin konparatuz gero, uste duzu hobetu dela, berdin jarraitzen duela ala okertu dela?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetu da	67,8	68,8	66,6	66,0	68,6	68,6	66,8	68,0	67,9
Berdin jarraitzen du	23,6	23,7	23,5	26,4	22,7	21,8	23,4	23,7	23,6
Okertu da	8,1	7,1	9,2	7,1	8,2	9,0	9,3	7,9	7,9
Ed/Ee	0,5	0,3	0,7	0,5	0,6	0,5	0,5	0,5	0,6
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Eta, zure ustez, datozen bost urteetan, zure egoera pertsonala hobetuko da, berdin jarraituko du edo okertuko da?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetuko da	80,3	79,4	81,2	76,0	82,2	82,5	79,9	80,4	80,2
Berdin jarraituko du	15,2	15,3	15,1	20,4	12,6	12,7	14,6	15,2	15,6
Okertuko da	3,4	3,8	3,0	2,2	4,8	3,3	4,2	3,5	3,0
Ed/Ee	1,1	1,5	0,7	1,3	0,5	1,5	1,3	1,0	1,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

GAZTERIA OSOAREN EGOERA

0 eta 10 arteko eskala berriro erabiliz (gogoratu 0ak oso txarto eta 10ak oso ondo esan nahi dutela), nola baloratzen duzu Euskadiko gazteen egoera orokorra gaur egun?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batezbestekoa (0-10)	6,2	6,2	6,2	6,6	6,2	5,9	6,3	6,1	6,3

Eta, zure ustez, datozen bost urteetan, Euskadiko gazteen egoera orokorra hobetuko da, berdin jarraituko du edo okertuko da?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetuko da	41,0	43,8	38,0	37,7	44,0	41,3	42,2	42,5	38,1
Berdin jarraituko du	37,9	35,5	40,5	35,2	35,1	43,0	36,3	36,2	41,2
Okertuko da	19,3	19,0	19,6	25,0	19,9	13,4	20,0	19,6	18,5
Ed/Ee	1,8	1,8	1,9	2,1	1,1	2,3	1,5	1,7	2,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EUSKADIKO EGOERA

Berrero ere 0 eta 10 arteko eskala erabiliz (badakizu 0ak oso txarto eta 10ak oso ondo esan nahi dutela), nola baloratzen duzu Euskadiko egoera orokorra gaur egun?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batezbestekoa (0-10)	6,9	7,0	6,8	7,2	6,9	6,6	6,9	6,9	6,9

Eta datozen bost urteetan uste duzu Euskadiko egoera hobetuko dela, berdin jarraituko duela edo okertuko dela?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Hobetuko da	50,9	53,5	48,2	50,4	51,9	50,5	49,1	53,9	47,3
Berdin jarraituko du	40,0	36,4	43,7	42,0	40,2	38,1	40,3	37,0	44,5
Okertuko da	7,6	8,8	6,3	6,7	6,5	9,3	9,4	7,5	6,8
Ed/Ee	1,5	1,3	1,7	0,9	1,4	2,1	1,3	1,7	1,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

BIZITZAREN HAINBAT ALDERDIRI EMANDAKO GARRANTZIA ETA HORIEKIKO SENTITUTAKO POZTASUNA

Orain zeure buruan pentsatuz, esadazu mesedez zenbateko garrantzia ematen diozun zure bizitzako momentu honetan ondoko gauza bakoitzari, 0 eta 10 arteko eskala berrero oinarri hartuta. Eskala horretan 0ak esan nahi du ez diozula batere garrantzirik ematen eta 10ak oso garrantzi handia ematen diozula.

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Osasunari	9,5	9,4	9,6	9,5	9,5	9,6	9,5	9,5	9,5
Familiari	9,4	9,4	9,5	9,5	9,3	9,4	9,4	9,4	9,4
Lagunei	8,9	8,8	8,9	9,0	8,9	8,8	8,9	8,9	8,9
Lanari	8,6	8,4	8,7	8,1	8,7	8,9	8,2	8,7	8,6
Ikasketei, prestakuntzari	8,6	8,3	8,8	8,7	8,6	8,4	8,5	8,6	8,5
Astiaidiari, denbora libreari	8,3	8,2	8,3	8,3	8,2	8,3	8,2	8,3	8,3
Emantzipatzeari, zure kontura bizitzeari	7,8	7,5	8,1	7,0	7,8	8,4	7,5	7,8	7,8
Harreman sentimentalei edota sexualei	7,9	7,9	7,9	7,5	8,1	8,1	7,8	7,8	8,0
Diruari	7,9	7,8	8,0	7,7	7,9	8,0	7,6	8,0	7,8
Itxura fisikoari	6,6	6,5	6,6	6,6	6,5	6,6	6,6	6,6	6,6

0 eta 10 arteko eskalarekin jarraituko dugu, baina oraingoan 0ak ez zaudela batere pozik eta 10ak oso pozik zaudela adierazten dute. Esango didazu zenbateraino zauden pozik momentu honetan zure bizitzaren ondoko alderdi hauekin?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Zure osasunarekin	8,7	8,7	8,8	8,9	8,7	8,5	8,6	8,7	8,8
Zure familiarekin	9,1	9,0	9,2	9,3	9,0	9,0	9,1	9,1	9,1
Zure lagunekin	8,6	8,6	8,6	8,9	8,6	8,4	8,6	8,7	8,5
Zure egoera laborala edo lanarekiko aurreikuspenekin	6,8	6,9	6,8	7,0	6,8	6,6	6,7	6,7	7,0
Zure ikasketekin, zure prestakuntzarekin	7,7	7,4	8,0	7,7	7,7	7,6	7,6	7,7	7,8
Zure astialdiarekin, denbora librearekin	7,5	7,5	7,5	7,6	7,4	7,5	7,3	7,5	7,6
Familiarekin edo zure kontura bizitzearekin, zure egoera kontuan izanda	7,9	7,9	7,9	8,7	7,9	7,3	8,0	7,9	8,0
Zure harreman sentimental edota sexuarekin	7,6	7,4	7,8	7,2	7,8	7,8	7,6	7,5	7,8
Hilean duzun diruarekin	6,6	6,7	6,6	7,2	6,5	6,2	6,8	6,5	6,8
Zure itxura fisikoarekin	7,7	7,7	7,7	7,9	7,7	7,5	7,8	7,7	7,8

LAN-EMIGRAZIOA

Uste duzu etorkizunean atzerrira joango zarela lan egitera?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	15,3	13,3	17,4	17,9	18,8	9,8	16,0	13,0	18,5
Agian bai	27,7	27,5	27,8	36,5	30,3	17,1	25,0	28,9	27,1
Ez duzu uste	42,8	43,4	42,2	36,8	40,4	50,6	46,5	44,5	38,7
Seguruena ez	13,3	14,3	12,2	8,0	9,2	21,8	12,3	12,8	14,4
Ed/Ee	0,9	1,5	0,4	0,8	1,3	0,7	0,3	0,8	1,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke atzerrira joan lan egitera: asko, nahikoa, gutxi edo batere ez?

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Asko	19,0	15,5	22,6	23,7	19,0	14,6	16,6	18,5	20,8
Nahikoa	30,9	32,6	29,2	33,6	33,7	26,0	32,3	30,3	31,3
Gutxi	31,9	34,1	29,6	30,6	31,0	33,8	35,9	32,8	28,8
Batere ez	17,8	17,1	18,5	11,9	15,5	25,5	15,1	18,4	18,2
Ed/Ee	0,4	0,7	0,1	0,3	0,8	0,2	0,0	0,2	1,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

LANA

Uste duzu hemendik urtebetera zure lana galduko duzula, zuk hala nahi gabe?*

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	9,8	7,7	12,0	-	12,2	8,9	8,6	10,6	9,3
Agian bai	13,0	8,8	17,4	-	12,4	13,1	16,6	9,5	16,1
Ez duzu uste	51,5	51,3	51,6	-	48,2	52,6	49,6	56,7	45,4
Seguruenik ez	24,4	30,8	17,8	-	25,7	24,2	22,9	22,2	28,1
Ed/Ee	1,3	1,4	1,1	-	1,5	1,2	2,3	1,1	1,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Lan ordaindua dutenei bakarrik galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabeen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaude lanean.

Eta uste duzu hemendik urtebetera zure lan baldintzak okertuko direla? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	1,5	1,3	1,6	-	2,0	1,2	1,0	2,1	0,7
Agian bai	7,8	6,3	9,6	-	7,0	7,8	5,5	9,7	6,0
Ez duzu uste	59,9	57,7	62,6	-	56,4	61,3	69,0	62,1	52,7
Seguruenik ez	30,0	34,0	25,1	-	33,8	28,8	24,5	25,4	39,1
Ed/Ee	0,9	0,6	1,1	-	0,9	0,9	0,0	0,7	1,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Lana galduko dutenik uste ez duten langileei bakarrik galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabeen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaude lanean.

Uste duzu hemendik urtebetera lana aurkituko duzula? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	46,4	52,8	38,0	-	50,0	45,0	34,8	36,2	68,4
Agian bai	35,7	33,6	38,5	-	33,4	36,1	42,8	40,8	24,1
Ez duzu uste	14,4	9,8	20,5	-	11,8	15,9	19,6	17,3	7,5
Seguruenik ez	2,0	1,9	2,1	-	3,4	1,5	0,0	3,7	0,0
Ed/Ee	1,5	1,9	0,9	-	1,4	1,5	0,0	2,0	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Langabezian daudenei bakarrik galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabeen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaude langabezian.

Uste duzu ikasketak amaitzean zure prestakuntzari lotutako lana aurkituko duzula? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	33,0	35,8	30,3	32,8	32,5	36,5	25,2	29,0	42,9
Agian bai	42,5	45,7	39,3	44,9	42,1	30,0	45,2	43,2	40,3
Ez duzu uste	22,3	17,0	27,8	20,4	23,8	28,3	27,2	25,0	15,8
Seguruenik ez	1,7	1,1	2,3	1,6	1,2	4,4	1,4	2,2	1,1
Ed/Ee	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	0,7	0,9	0,6	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Ikasleei bakarrik galdetu zaie.

EMANTZIPAZIOA

Uste duzu hemendik urtebetera zure kontura bizitzera joango zarela?*

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	12,4	12,3	12,4	7,8	8,3	21,0	12,9	10,0	15,9
Agian bai	18,3	16,7	20,1	12,4	16,7	26,1	19,6	16,7	20,3
Ez duzu uste	40,3	41,1	39,5	39,0	46,5	35,8	41,4	43,4	35,1
Seguruenik ez	28,9	29,6	28,0	40,5	28,5	17,1	25,9	29,9	28,5
Ed/Ee	0,1	0,2	0,0	0,3	0,0	0,0	0,3	0,0	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta ez daudenei galdetu zaie.

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke zure kontura bizitzera joan: asko, nahikoa, gutxi edo batere ez? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	40,7	37,4	44,3	23,3	40,0	59,3	42,2	38,9	42,9
Agian bai	42,3	42,7	41,9	46,5	46,7	33,9	38,2	44,3	41,0
Ez duzu uste	14,2	16,7	11,5	25,6	10,9	5,6	15,7	14,6	13,0
Seguruenik ez	2,6	3,0	2,1	4,3	2,3	1,1	3,3	2,1	3,1
Ed/Ee	0,2	0,2	0,2	0,4	0,0	0,1	0,6	0,2	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta ez daudenei galdetu zaie.

Uste duzu hemendik urtebetera zure familiaren edo gurasoen etxera bizitzera bueltatuko zarela? *

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Segur aski bai	0,7	2,3	0,0	-	0,0	0,9	2,9	0,0	0,0
Agian bai	5,7	2,0	7,5	-	12,9	3,0	5,5	7,7	3,6
Ez duzu uste	37,9	50,8	31,8	-	43,8	36,3	54,2	31,8	33,2
Seguruena ez	52,5	44,9	56,0	-	34,3	57,7	37,5	52,9	63,2
Ed/Ee	3,2	0,0	4,7	-	8,9	2,1	0,0	7,7	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta daudenei galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabeen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaute emantzipatuta.

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke zure familia edo gurasoen etxera bizitzera bueltatu: asko, nahikoa, gutxi edo batere ez?*

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Asko	1,3	0,0	1,8	-	0,0	1,5	0,0	0,0	3,7
Nahikoa	12,7	19,8	9,3	-	20,3	10,0	11,3	11,8	14,8
Gutxi	44,5	44,8	44,3	-	54,7	42,2	39,6	47,2	44,7
Batere ez	41,6	35,4	44,5	-	25,0	46,2	49,1	41,1	36,7
Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	-	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Emantzipatuta daudenei galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabeen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaute emantzipatuta.

GAZTEEN GAITASUNEKIKO BALORAZIOA

Orain Euskadiko gazteei buruz duzun iritzia...

	GUZTIRA	Sexua		Adin taldeak			Lurralde historikoa		
		Gizonak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Langileak									
Oso	15,8	13,5	18,2	10,3	15,3	21,4	14,9	14,3	18,4
Nahikoa	62,2	63,5	60,8	65,7	63,7	57,5	65,5	60,0	64,0
Ez oso	20,5	21,4	19,5	22,5	19,2	19,7	16,7	24,3	16,3
Batere ez	1,3	1,4	1,1	1,6	1,6	0,7	1,9	1,2	1,2
Ed/Ee	0,3	0,2	0,4	0,0	0,2	0,7	1,0	0,2	0,2
Arduratsiak									
Oso	11,6	10,8	12,4	9,9	9,3	15,2	11,8	10,1	13,8
Nahikoa	61,1	60,9	61,4	59,5	64,0	60,0	61,1	59,5	63,5
Ez oso	25,6	26,8	24,4	28,7	25,6	22,7	25,1	28,4	21,6
Batere ez	1,6	1,6	1,6	1,9	1,0	1,8	1,3	2,0	1,0
Ed/Ee	0,2	0,0	0,4	0,0	0,2	0,3	0,7	0,0	0,2
Kualifikatuak, prestatuak									
Oso	35,9	33,5	38,3	23,5	37,1	46,2	32,1	34,7	39,3
Nahikoa	52,2	54,3	50,1	61,2	51,5	44,5	55,9	51,3	52,0
Ez oso	10,8	11,3	10,2	14,0	10,3	8,2	11,2	12,9	7,3
Batere ez	0,5	0,7	0,4	0,8	0,7	0,2	0,2	0,3	1,0
Ed/Ee	0,6	0,3	1,0	0,5	0,4	1,0	0,5	0,8	0,4
Parte-hartzaileak, arazo publikoek arduratuak									
Oso	18,5	17,0	20,1	24,0	13,9	17,5	20,1	17,4	19,5
Nahikoa	40,6	40,8	40,4	36,0	45,3	40,6	40,7	39,6	41,9
Ez oso	36,1	36,7	35,4	36,4	35,8	36,0	34,5	38,5	33,0
Batere ez	4,4	5,3	3,4	2,9	4,5	5,5	3,3	4,4	4,8
Ed/Ee	0,5	0,3	0,8	0,8	0,5	0,3	1,3	0,2	0,8
Ekintzaileak									
Oso	13,6	13,6	13,6	17,1	11,7	12,1	9,4	12,1	17,7
Nahikoa	43,6	41,4	45,9	50,0	40,1	40,7	46,4	41,9	44,8
Ez oso	37,4	37,3	37,4	27,9	42,1	41,9	38,0	41,7	30,5
Batere ez	3,8	6,0	1,6	2,9	4,7	3,9	4,5	3,0	4,8
Ed/Ee	1,6	1,7	1,5	2,0	1,4	1,4	1,7	1,2	2,2
Idealistak									
Oso	17,4	16,6	18,2	19,4	16,0	16,6	15,3	17,5	18,1
Nahikoa	52,7	53,3	52,0	51,1	51,6	55,1	54,4	49,1	57,2
Ez oso	25,2	25,0	25,4	25,3	27,4	23,0	25,5	28,5	20,0
Batere ez	2,3	3,2	1,4	1,5	3,2	2,3	2,5	2,5	2,0
Ed/Ee	2,5	1,9	3,1	2,7	1,7	3,0	2,2	2,4	2,7

Orain Euskadiko gazteei buruz duzun iritzia...

Autonomoak, beren kabuz moldatzeko gai									
Oso	17,4	17,5	17,2	20,6	14,8	16,7	19,4	15,4	19,4
Nahikoa	44,4	46,4	42,2	44,4	42,7	45,8	41,9	43,7	46,5
Ez oso	33,8	32,1	35,6	29,9	37,4	34,3	34,4	36,0	30,4
Batere ez	3,9	3,4	4,4	4,6	4,8	2,3	3,5	4,7	2,7
Ed/Ee	0,5	0,5	0,6	0,5	0,2	0,9	0,8	0,2	1,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100